

**ezagutzen al
duzu Donostia?**

Notixitxar

Notixitxarreko Meategiak Donostiako udal barrutiaren hegoekialdeko azken muturrean daude, *Altza-Basoan Oberango* barrendegian, Añarbeko mendi eta oihanen mugetan, Udaletxetik urrutien dagoen udal barrutiko alderdia da. Oinez abiatu ezkerre *Egia, Ametzagaña, Benta, Landarbaso, Malmazar* eta *Mandillen Paradatik* zehar hogeiki kilometro bezelatsu egin behar dira oinez *Notixitxarrera* heltzeko. Mendiz, bide motzenetik joanda ere urrun dira inguru hauek benetan! Antzinakoak diren meatze hauek, dirudienez, joan den menderarte hustiatu ziren eta burnia ateratzen zen. Mando gainean garraiatzen zen minerala; hauek, mandazainek mando-taldea lerroan gidatuta Urumea ibaiertzean zeuden hainbat burnioletara: *Arranbide, Askatsua, Aparrain, Urruzuno, Abillats, Ereñotzu, Fagollaga...* eramaten zuten minerala aipatutako oleta-



ko labectan urtu eta burnia ateratzeko.

Notixitxarreko inguruetara txango bat egiteko udazkena da urte arorik ederrena. *Altza-Baso*

urre kolorez jazten da garai hauetan. Benetan zoragarria da mendi oihantsu eta bakarti haue-tako haritzen eta pagoen orbelaren artean pasea-

tzea. Aintzinan ez dakigu baina, gaur hara joaten denak ez ditu ez, ziur, notizi txarrak ekarriko!

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

KANTU LIBURUSKA

Zure afari, bazkari, bidaiak eta lagun giroetan lagunduko dizun liburuxka praktikoa

Zatoz BAGERAren bulegora (Tfnoa.: 431228)

